Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes

# BILERA-AKTA / ACTA DE REUNIÓN

| ZEHAZTASUNAK / DETALLES | |
|---|---|
| Gaia edo arloa / Tema o materia: **ESKOLA KIROLEKO LURRALDE KONTSEILUA** | |
| Tokia / Lugar: **Aurrez aurrekoa Aldundiko Jauregian (KIROL ETXEA) eta On line (JI TSI)** | |
| Eguna / Día: **2023-02-28** | Ordua / Hora: **18:30-20:00** |

**PARTAIDEAK (HORIZ) / PARTICIPANTES**

| Izen-abizenak / Nombres y apellidos | | Entitatea / Entidad |
|---|---|---|
| Aitziber Murua | EZ | Udala / Ayuntamiento |
| Pablo Murias | BAI | Udala / Ayuntamiento |
| Rosa Lasagabaster | BAI | Udala / Ayuntamiento |
| Antxon Alberdi | EZ | Udala / Ayuntamiento |
| Alex Astigarraga | EZ | Udala / Ayuntamiento |
| Iñaki San Martin | BAI | Federazioa / Federación |
| Jose Angel Rial | EZ | Federazioa / Federación |
| Ion Camio – Ane Lore | BAI | Federazioa / Federación |
| Miguel Angel Rodríguez | EZ | Federazioa / Federación |
| Jon Marquet | BAI | Federazioa / Federación |
| Alicia Figueroa | EZ | Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa (gonbidatua) Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado (invitado) |
| Eneritz Maioara | BAI | Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa (gonbidatua) Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado (invitado) |
| Xabier Sorondo | EZ | Ikastetxea / Centro escolar |
| Julen Perales | | Ikastetxea / Centro escolar |
| Maialen Pescador | EZ | Ikastetxea / Centro escolar |
| Patxi Goia | BAI | Ikastetxea / Centro escolar |
| Fernando Urien | EZ | Ikastetxea / Centro escolar |
| Goizane Álvarez | EZ | GFA / DFG |
| Iñaki Iturrioz | BAI | GFA / DFG |
| Itsaso Nabaskues | BAI | GFA / DFG |
| Zuriñe Uranga | EZ | GFA / DFG |

**GAI-ZERRENDA**
**ORDEN DEL DIA**

| | |
|---|---|
| 1. Aurreko bilerako akta irakurtzea eta onartzea.<br>**Dokumentua erantsita. 2022/06/14koa* | 1. Lectura y aprobación del acta de la reunión anterior.<br>** Se adjunta documento. Del 14/06/2022* |
| 2. 2023ko Lurralde Kontseiluko kideen hauteskundeak | 2. Elecciones de miembros del Consejo Territorial de 2023 |
| 3. Jolas Hezi kanpainako eragina. Datuak, nesken partaidetza. | 3. Impacto de la campaña Jolas Hezi. Datos, participación de las chicas. |
| 4. Multikirola programako datuen eboluzioa. Nesken partaidetza. | 4. Evolución de los datos del programa Multikirola. Participación de las chicas. |
| 5. Gutxieneko jardunaldi kopurua errespetatzen ez duten Multikirola taldeak. Hausnarketa partekatu. | 5. Grupos Multikirola que no respeten el número mínimo de jornadas. Reflexión compartida. |
| 6. Kluben bidezko izen emateak. Eragileen ekarpenak jasotzea. | 6. Inscripciones a través de clubes. Recoger las aportaciones de los y las agentes. |

| | |
|---|---|
| 7. Baimenik gabeko jarduerak. Udalen lankidetza. | 7. Actividades no autorizadas. Colaboración de los Ayuntamientos. |
| 8. Eskola kiroleko finantzaketa 2022-23. | 8. Financiación del deporte escolar 2022-23. |
| 9. Haurren indarkeriaren kontrako legearen eragina eskola kirolean. | 9. Incidencia de la ley contra la violencia infantil en el deporte escolar. |
| 10. Norberak ekar ditzazkeenak. | 10. 11. Las que los y las asistentas puedan traer. |

| **EZTABAIDAK ETA ERABAKIAK** | **DELIBERACIONES Y ACUERDOS** |
|---|---|
| Agurra | Saludo |
| **1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea.**<br><br>Akta aho batez onartu da. | **1. Lectura y aprobación del acta de la reunión anterior.**<br><br>Se aprueba el acta por unanimidad. |
| **2. 2023ko Lurralde Kontseiluaren kideen hauteskundeak**<br><br>GFAko teknikariak hitza hartzen du azaltzeko nola bi urtean behin Lurralde Kontseiluaren kideen erdia aldatu behar den. Aukera honetan, hauek dira aldatzekotan dauden erakundeak:<br>Ikastetxeak: Ibai ikastola, Kurtzebarri eta Lizardi.<br>Udalak: Irun eta Villabona.<br>Federazioak: piraguismo, triatloia eta hockey.<br>Gaurko bilera ondoren GFA-k martxan jarriko ditu hautaketa prozesuak, maiatza aldera dena itxita egongo delakoan.<br>Irungo udaleko ordezkariak beste udaletako ordezkariekin kontaktuen beraiek sustatu behar duten ala aldundia zuzenean egoingo duen galdetzen du.<br>GFA-ko teknikariak hautaketa egiteko haien arteko harreman horiek ongi etorriak izango direla erantzun du. | **2. Elecciones de miembros del Consejo Territorial de 2023.**<br><br>Toma la palabra la técnica de la DFG para explicar que cada dos años hay que cambiar la mitad de los miembros del Consejo Territorial. En esta ocasión, las entidades que se prevé modificar son:<br>Centros escolares: Ikastola Ibai, Kurtzebarri y Lizardi.<br>Ayuntamientos: Irun y Villabon.<br>Federaciones: piragüismo, triatlón y hockey.<br>Tras la reunión de hoy, la DFG pondrá en marcha los procesos de selección, con la esperanza de que todo esté cerrado hacia mayo.<br>El representante del Ayuntamiento de Irun pregunta si deben promoverlo ellos mismo en contacto con representantes de otros ayuntamientos o si lo hará la Diputación directamente.<br>La técnica de la DFG responde que esas relaciones entre ellos para hacer la selección serán bienvenidas. |
| **3. Jolas Hezi kanpainako eragina. Datuak, nesken partaidetza.**<br><br>GFA-ko teknikariak azaltzen du 2022ko ekaina eta irailean familiei zuzendutako komunikazio kanpaina bat bideratu zela, bereziki, Jolas Hezi programan nesken partaidetza sustatzeko, egun dagoen genero arrakala gutxiagotu asmoz. Aurkeztutako datuak erakusten dutenez, komunikazio kanpain horrek ez ditu espero ziren emaitzak lortu. Nesken partaidetza sustatzeko lanean jarraituko du aldundiak. | **3. Impacto de la Campaña Jolas Hezi Datos, participación de las chicas.**<br><br>La técnica de la DFG explica que en los meses de junio y septiembre de 2022 se llevó a cabo una campaña de comunicación dirigida a las familias, especialmente para fomentar la participación de las chicas en el programa Jolas Hezi, con el fin de minimizar la brecha de género existente. Los datos presentados muestran que la citada campaña de comunicación no ha alcanzado los resultados esperados. La Diputación seguirá trabajando para fomentar la participación de las chicas. |
| **4. Multikirola programako datuen eboluzioa. Nesken partaidetza.**<br><br>Multikirola programaren parte hartzearen datuen berri eman du GFA-ko teknikariak. Helburu nagusia, Multikiroleko programan COVID-en eragina aztertzea izan da.<br>Igoera nabarmena jaso da Multikiroleko izen emateetan pandemiatik hona. Nesken partaidetza | **4. Evolución de los datos del programa Multikirola Participación de las chicas.**<br><br>La técnica de la DFG informa sobre los datos de participación en el programa Multikirola. El objetivo principal ha sido analizar el impacto de la COVID-19 en el programa Multikirola.<br>Se ha producido un incremento significativo en las inscripciones de Multikirola desde la pandemia. La |

| | |
|---|---|
| bereziki areagotu da azkeneko urteetan. Kirol eskoletan igoera haundia ere bai, areto futbolean izan ezik.<br>Triatloiko federaioaren ordezkariak Donostiako multikirola eskaintzaren aldearen inguruko galdera egin du.<br>GFAko teknikariak azaldu du Donostian bi antolaketa aukera aurkitzen direla nagusiki, kasu batean taldea mantentzen da ikasturtean zehar programa itxi batean parte hartuz (Multirirola Programa bezala ezagutzen dena), modaliitate desberdinak eskintzen ditu. Beste eskaintza motan, aldiz, haurrak hautatzen du egin nahi dituen kirolak eta modalitate bakoitzean taldea baita monitorea ere aldatu egiten da. | participación de las chicas ha aumentado especialmente en los últimos años. En las escuelas deportivas el incremento ha sido importante, excepto en fútbol sala.<br>El representante de la Federación Guipuzcoana de Triatlón pregunta por la diferencia de la oferta Multikirola de San Sebastián.<br>La técnica de la DFG explica que en San Sebastián hay principalmente dos opciones organizativas, en un caso se mantiene el grupo a lo largo del curso participando en un programa cerrado (conocido como Programa Multikirola), que ofrece diferentes modalidades. En el otro tipo de oferta, el niño o la niña elige los deportes que quiere practicar y en cada modalidad cambia el grupo y el monitor o monitora. |
| **5. Gutxieneko jardunaldi kopurua errespetatzen ez duten Multikirola taldeak. Hausnarketa partekatu.**<br><br>GFAko teknikariak azaltzen du egun, Eskola Kiroleko programak, Multikirola programen bidez haurrek talde-kirol batzuetan gutxieneko esperientzia eta ikaskuntza eskuratzea sustatzeko, ondorengo irizpidea jasotzen duela:<br>• Benjaminetan 3 talde-kiroletan gutxienez 4 jardunaldi.<br>• Alebinetan 2 talde-kiroletan gutxienez 4 jardunaldi<br><br>Triatloiko ordezkariak: Kiol modalitateen jardunaldiak lauak jarraian edo ikasturtean zehar banatuta ere antola daiteke.<br><br>Kurtzebarriko ordezkaria: Jardunaldi kopuru gutxieneko irizpidea ezartzeko motibazioa zein izan den galdetzen du. Modalitate horietako kluben aldarrikapena? Haiek 2 jardunaldietako multzoak eskaintzen dituzte. Jardunadi bakoitzean partida bat baino gehiago jokatzen dute haurrek. Astean zehar zer lantzen den kontuan hartu beharko litzake.<br><br>Irungo udaleko ordezkaria: kirol kolektiboen arteako transferentziak daudela kontutan hartu behar da. Gainera, talde kirolen kluben eskolen eskaintza dago. Minimoak ez daude bermatuta kasu guztietan, baina kluben eskoletan ikasle ugarik parte hartzen du. Herrian dauden beste kirolei arreta eman nahi diete eta gutxienez 4 jardunaldi egin behar badira, baten bat baztertzea ekarriko luke. Ez dituzte asteburuetan partidak egiten. Astean zehar zer lantzen den kontuan hartu beharko litzake.<br><br>GFAko teknikariak: irizpideak kirol modalitateetarako jardunaldiak eta baita banakako modalitateetarako jardunaldiak ere proposatzen ditu.<br><br>Anoeta ikastola: Tolosaldean programaren edukien eskaintza areagotu zuten baina berriro ohiko kirol multzoetara bueltatzea erabaki zuten. Parte hartzearen | **5. Equipos multideportivos que no respeten un número mínimo de jornadas. Reflexión compartida.**<br><br>La técnica de la DFG explica que, actualmente, el programa de Deporte Escolar, con el fin de fomentar el aprendizaje y la experiencia mínima de los niños y niñas en algunos deportes de equipo a través de los programas Multikirola, recoge el siguiente criterio:<br>• En categoría benjamín, al menos 4 jornadas en 3 deportes de equipo.<br>• En categoría alevin, al menos 4 jornadas en 2 deportes de equipo.<br><br>Representante de triatlón: Las jornadas de modalidades deportivas se pueden organizar las cuatro seguidas o repartidas a lo largo del curso.<br><br>El representante de Kurtzebarri: Pregunta cuál ha sido la motivación para establecer el criterio de número mínimo de jornadas. ¿Reivindicación de los clubes de esas modalidades? Ellos ofrecen bloques de 2 jornadas. En cada jornada los niños y niñas juegan más de un partido. Habría que tener en cuenta lo que se entrena a lo largo de la semana.<br><br>El representante del Ayuntamiento de Irun: hay que tener en cuenta que hay transferencias entre deportes colectivos. Además, existe una oferta de escuelas de clubes de deportes de equipo. Los mínimos no están garantizados en todos los casos, pero en las escuelas de los clubes participa mucho alumnado. Quieren atender a otros deportes que hay en el pueblo y si hay que hacer al menos 4 jornadas, supondría rechazar alguna. No celebran partidos los fines de semana. Habría que tener en cuenta lo que se entrena a lo largo de la semana.<br><br>La técnica de la DFG: el criterio propone jornadas para modalidades deportivas de equipo y también para modalidades individuales.<br><br>Ikastola Anoeta: En Tolosaldea aumentaron la oferta de contenidos del programa, pero decidieron volver a los grupos deportivos tradicionales. Se ha percibido en el |

| | |
|---|---|
| mailan nabaritu da, sustapen jardueretan partaidetza eskasa zen. Modu honetan, ikaslegoa engantxatzea lortu dute. Jolashezin nesken partaidetzari dagokionez, baldaintzatzaile garrantzitsua da aurrebenjaminetan dagoen gimnasia erritmikoko eta igeriketako eskaintza. Haur horietako askok, ostera, benjaminetan ez dute Multikirolean parte hartzen.<br><br>Oñatiko udaleko ordezkaria: Jardunaldi kopuruak murriztu dituzte gurasoei inkestak pasata, beraz egutegian irizpideak errespetatzea ez da erreza. Partaidetza jardunalditan ere behera doa.<br><br>Kurtzebarriko ordezkaria: beraien kasuan ere Oñatikoan bezala, familien eskaeraren ondorioz aplikatu dugu eta aurreko ikasturtetik hona 3 larunbat kendu ditugu eta partaidetza behera doa.<br><br>Irungo udaleko ordezkaria: astean zeharreko entrenamendu kopurua kontuan hartzea garrantzitsua iruditzen zaio.<br><br>GFAko teknikariak adierazten du aldundiak Multikirola zer den definitzeko lanetan hasiko dela, era malgu batean, ostera, eskualde/lehiaketa puntu bakoitzak berea egin dezan. Horrek etorkizunera erabakiak hartzea erraztuko du. Prozesu hau eragileekin batera egin nahi da. Asteburuko jardunaldi kopurua minimoa dena delakoa izanda ere, Multikirola programako eskaintzak 4 urteko koherentzia eskaini beharko luke. Asteburukoa astean zehar lantzen denarekin lotu beharko genuke. | nivel de participación, la participación en las actividades de promoción era escasa. De esta manera han conseguido atraer al alumnado. En cuanto a la participación de las chicas en Jolashezi, la oferta de gimnasia rítmica y natación en prebenjamines es un condicionante importante. Muchas de esos niños y niñas, en cambio, no participan en el Multikirola en benjamines.<br><br>La representante del Ayuntamiento de Oñati: Se ha reducido el número de jornadas después de realizar encuestas a los padres y las madres, por lo que no es fácil respetar los criterios en el calendario. La participación también desciende en las jornadas.<br><br>El representante de Kurtzebarri: como en el caso de Oñati, lo hemos aplicado como consecuencia de la demanda de las familias y desde el curso anterior hemos eliminado 3 sábados y la participación está en descenso.<br><br>El representante de Irun: considera importante tener en cuenta el número de entrenamientos a lo largo de la semana.<br><br>El técnico de la DFG indica que la Diputación va a empezar a definir qué es el Multikirola, pero de una manera flexible para que cada punto de competición/comarca lo haga suyo. Esto facilitará la toma de decisiones en el futuro. Este proceso se pretende realizar conjuntamente con los agentes. Sea cual sea el número mínimo de jornadas de fin de semana, la oferta del programa Multikirola debería ofrecer una coherencia de 4 años. Deberíamos relacionar el fin de semana con lo que se trabaja a lo largo de la semana. |
| **6. Kluben bidezko izen emateak. Eragileen ekarpenak jasotzea.**<br><br>GFAko teknikariak aurreko ikasturtean eskola kiroleko programaren parte-hartze lehiaketako izen emateak kluben bitartez egiteko irizpidea matxan jarri dela azaltzen du, benjamin eta alebin kategorietan. Kirol eragileekin batera hasierako azterketa eginda, egoera erreztuko lukeela ikusi zen, bereziki eskola kiroleko koordintzaileen lan administratiboen lan karga. Lehenago jasotzen ez ziren izen emateak jasotzeko, aukera baliogarria izan zitekeela baloratu zen. Benjamin eta alebinetako izen emateak ikasturte honetatik kluben bitartez egiten hasi gara, Kiroldata, aplikazioa erabiliz. Eskualde bulegoetan jaso dugu lan karga haunditu dela baina balorazio orokorra positiboa izan da.<br><br>Triatloi federazioko ordezkaria: haurren kodearekin batzutan arazoa ematen du. Datu batzuetan okerrak direlako eta haurra duplikatua agertzen delako. | **6. Las inscripciones a través de clubes. Recoger las aportaciones de los agentes.**<br><br>La técnica de la DFG explica que se ha puesto en macha el criterio de realizar las inscripciones en competiciones de participación del programa de deporte escolar a través de los clubes el curso anterior, en las categorías benjamín y alevín. Realizado un análisis inicial con los agentes deportivos, se observó que facilitaría la situación, especialmente la carga de trabajo de los coordinadores de deporte escolar. Se valoró que podía ser una opción válida para recoger las inscripciones que no se recogían anteriormente. Las inscripciones para benjamines y alevines se han comenzado a realizar desde este curso a través de los clubes, utilizando la aplicación *Kiroldata*. En las oficinas comarcales hemos percibido un aumento de la carga de trabajo, pero la valoración global ha sido positiva.<br><br>El representante de la Federación de Triatlón: a veces surgen problemas con el código de los niños y niñas, ya que hay datos que son erróneos y el niño o niña |

| | |
|---|---|
| GFAko teknikaria: kasu horietan eskualde bulegoarekin harremanetan jarri zuzenketa egiteko.<br><br>Triatloi federazioko ordezkaria: etapaz aldatzen direnean, gehiago gertatzen dira akats horiek… Lhtik DBHrako aldaketan adibidez.<br><br>Oñatiko udaleko ordezkaria: joan etorrien dirulaguntzak kluben artean banatuko dira?<br><br>GFAko teknikaria: dirulaguntza horiek aurten ikastetxeentzat mantenduko dira, mendizaletasun jarduerak indarzteko.<br><br>Irungo udaleko ordezkaria: kluben izen emateak ikastetxeek nabaritu dute gehien bat, lana arindu zaie. Hezkuntza sailarekin koordinatuta aipatzen diren datuetan akatsak ekidingo lirateke.<br><br>GFA-ko teknikariak dio matrikulazio datuak eskuratzea bai lortu dela, baina ez datu izendunekin. Etorkizunean inetroperabilidadeak aukera hori zabal dezake. Une honetan ez dago. | aparece duplicado.<br><br>La técnica de la DFG: en esos casos hay que ponerse en contacto con la Oficina Comarcal para realizar la corrección.<br><br>Representante de la federación de triatlón: cuando cambian de etapa, se producen más errores de esos, por ejemplo en el cambio de EP a ESO.<br><br>Representante del Ayuntamiento de Oñati: ¿Se van a repartir las subvenciones por traslados entre los clubes?<br><br>El técnico de la DFG: esas subvenciones se mantendrán este año para centros escolares para el refuerzo de actividades de montañismo.<br><br>Representante del Ayuntamiento de Irun: la inscripción en los clubes la han percibido más los centros escolares, se les ha aliviado el trabajo. Esos errores en los datos se evitarían coordinándose con el Departamento de Educación.<br><br>El técnico de la DFG dice que se ha conseguido obtener los datos de matriculación, pero no con datos nominativos. En el futuro la interoperabilidad puede ampliar esta posibilidad. En este momento no existe. |
| **7. Baimenik gabeko jarduerak. Udalen lankidetza. Akordioak bete arazteko eragileen elkarlana.**<br><br>GFAko teknikariak azaltzen du pandemiatik hona areagotu egin direla akordioen ez-betetzeak. GFAtik ikuskaritzak egiten ari gara. Eragile desberdinengatik ez betetzeak jasotzen ari gara. Batzuk saskibaloiean eta eskualde desberdinetan. Hori zuzentzeko 2 bilera egin genituen saskibaloi klubekin hori zuzendu eta akordioetara iristeko. Futbolean ere isun batzuk jarri dira, eta ez bakarrik ekonomikoak. Egiten da ahal dena espedienteak eta isunak ez jartzeko, baina batzuetan ez dago beste aukerarik. Hori horrela, bereziki, udalen laguntza eskatzen dugu baimendu gabeko jarduera horietako asko udal instalakuntzetan burutzen direlako. Udalei ikasturte honetan laguntza eskatu diegunean berehalako erantzuna egon da. Ikastetxe batzuetan ere baimendu gabeko jardueretarako klubei erreserbak egiten direla ikusi dugu.<br><br>Kurtzebarriko ordezkaria: Zeinen ardura da arau hauste horien inguruan aldundiari informatzea?<br><br>GFAko teknikaria: Araua betearazteko ardura aldundiarena da baina arau-hausteen inguruko informazioa helarazteko ardura denona izan daiteke. Eragile desberdinen salaketak jasotzen ditugu eta, | **7. Actividades no autorizadas. Colaboración de los ayuntamientos. Colaboración de los agentes para hacer cumplir los acuerdos.**<br><br>El técnico de la DFG explica que desde la pandemia se han incrementado los incumplimientos de los acuerdos. Desde la DFG estamos haciendo inspecciones. Estamos recibiendo incumplimientos por parte de diferentes agentes. Algunos en baloncesto y en distintas comarcas. Se mantuvieron 2 reuniones con los clubes de baloncesto para corregirlo y llegar a acuerdos. En el fútbol también se han impuesto algunas sanciones, y no sólo económicas. Se hace lo posible para no abrir expedientes ni imponer sanciones, pero a veces no hay alternativa. Por ello, especialmente, solicitamos la colaboración de los ayuntamientos porque muchas de estas actividades no autorizadas se llevan a cabo en las instalaciones municipales. Cuando hemos pedido ayuda a los ayuntamientos este curso ha habido una respuesta inmediata. Hemos detectado que en algunos centros también se hacen reservas a clubes para actividades no autorizadas.<br><br>Representante de Kurtzebarri: ¿Quién es el responsable de informar a la Diputación sobre esas infracciones?<br><br>La técnica de la DFG: La responsabilidad de hacer cumplir la norma es de la Diputación, pero la responsabilidad de informar sobre las infracciones puede ser de todos y todas. Recibimos denuncias de |

| | |
|---|---|
| batzuk beren izena anonimatoan mantentzeko eskatzen digute. uste dugu denon ardura dela arau-hausteen berri ematea, bereziki, eskola kiroleko beste jarduera batzuk kaltetzeaz gain, jardurok haurren interesen kontra joan daitezkeelako. Tokiko eragileen informazioak oso baliagarriak zaizkigu baimen gabeko jarduera horiek ekidin eta zuzentzeko. | diferentes agentes y, algunos nos piden que mantengamos su nombre en el anonimato. Creemos que es responsabilidad de todos y todas informar de las infracciones, especialmente porque además de perjudicar otras actividades del deporte escolar, estas prácticas pueden ir en contra de los intereses de los niños y niñas. Las informaciones de los agentes locales nos son de gran utilidad para evitar y corregir estas actividades no autorizadas. |
| **8. Eskola kiroleko finantzaketa 2022-23.**<br><br>Eskola kiroleko tokiko egiturak eta igeriketa kanpainarako dirulaguntza areagotu da. Lerro horietan egon diren berrikuntzak azaldu dira.<br><br>A1a) Jardunaldi kopurua kontuan hartuko da. Talde askotan monitoreak sartzea falta da eta udalei eskutitza bat bidaliko zaie ikastetxeekin harremanetan jarri eta datu hori sartzeko eskatuz. Eskualde Bulegoetatik ikastetxeekin harremanetan jarri gara baina ez dugu lortzen ezinbestekoa den datu hori sartzea.<br><br>Triatloi federazioko ordezkaria: haiek antolautako jarduueretan, zein ikastetxeetan, igerian ez dakiten ikasleak ikusten dituzte. Haien artean etorkinak batik bat. Haur ugarik ez dituzte jarduera egiteko gutxioenekoak betetzen. | **8. Financiación del deporte escolar 2022-23.**<br><br>Se ha incrementado la subvención para las estructuras locales de deporte escolar y para la campaña de natación. Se exponen las novedades que se han producido en estas líneas.<br><br>A1a) Se tendrá en cuenta el número de jornadas. En muchos grupos falta introducir monitores y se enviará una carta a los ayuntamientos pidiendo que contacten con los centros y que introduzcan ese dato. Desde las oficinas comarcales nos hemos puesto en contacto con los centros, pero no conseguimos introducir este dato imprescindible.<br><br>Representante de la federación de triatlón: tanto en las actividades que organizan, como en los centros, ven a alumnado que no sabe nadar. Principalmente, es alumnado inmigrante. Numerosos niños y niñas no cumplen los requisitos mínimos para realizar la actividad. |
| **9. Haurren indarkeriaren kontrako legearen eragina eskola kirolean.**<br><br>GFAko teknikariak LOPIVI izeneko legearen eskakizunak, indarrean dagoena, azaltzen ditu. LOPIVI-k kirol eragileak 3 betebeharretara behartuko ditu:<br><br>a) Formakuntza: bi formakuntza ari da eskaintzen, lehenengoa, sentzibilizazio ikastaroa, (entrenataile+monitoreentzako, on line, 4 ordutakoa, dohanekoa) eta, bigarrena, protokoloaren erabileraren ingurukoa, pertsona delegatuak egin beharko duena.<br><br>b) Delegatua Izendatu beharra. Honek bi prestakuntzak egin behar ditu. Kirolaren Euskal Eskolaren bitartez eskuragarri daude prestakuntza horiek.<br><br>c) Protokoloa martxan jartzea. Oinarrizko protokoloa gure web gunean eskuragarri dago.<br><br>Zerbait gertatzen *dabada Zeuk esan / Zure taldekoak gara* dagoeneko aktibo daude. Gure web gunean dago informazio guztia.<br><br>Udal kirol teknikariekin bilera egin zen aurreko astean | **9. Impacto de la ley contra la violencia infantil en el deporte escolar.**<br><br>La técnica de la DFG explica las exigencias de la ley vigente LOPIVI. La LOPIVI obligará a los agentes deportivos a cumplir 3 requisitos:<br><br>a) Formación: se están ofreciendo dos formaciones, la primera de ellas un curso de sensibilización (para entrenadores+monitores, on line, de 4 horas, gratuita) y, la segunda, sobre el uso del protocolo, que deberá realizar la persona delegada.<br><br>b) Nombramiento de delegado/delegada. Esta persona debe realizar las dos formaciones. Esas formaciones están disponibles a través de la Escuela Vasca del Deporte.<br><br>c) Puesta en marcha del protocolo. El protocolo básico está disponible en nuestra web.<br><br>Si pasa algo, los programas Z*euk esan* y *Zure taldekoak gara* ya están activos. Toda la información está en nuestro sitio web.<br><br>La semana pasada se celebró una reunión con los |

| | |
|---|---|
| eta bertan, udalen arduraz galdetu zen. Azpikontratek betebehar hauek betetzen dituztela gainbegiratu behar dute. | técnicos y las técnicas de deporte municipales en la que se preguntó por la responsabilidad de los ayuntamientos. Deberán supervisar que las subcontratas cumplen esos requisitos. |
| Eta beste honenbestez, bilerari amaiera eman dio GFAko kiroletako zerbitzuburuak 19:40etan. | Finalmente, el jefe del Servicio de Deportes de la DFG ha clausurado la reunión a las 19:40 horas. |

**Itsaso Nabaskues**
**Técnica de Deportes**